

1864/2022 EBAZPENA, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESiko Anestesiologia eta Bizkortzeko Osasun Atal Sanitarioko burua (Minaren Unitatea) hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen martxoaren 2ko 207/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa bat egin zen Donostialdeko ESiko Anestesiologia eta Bizkortzeko Osasun Atal Sanitarioko burua (Minaren Unitatea) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko uztailaren 21eko EHAAen 141 zk eta 2022ko abuztuaren 2ko BOEn 184 zk).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun baliodunek epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko abuztuaren 24an amaitu zen.

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen abuztuaren 25eko 1747/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horrek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertzeiko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Donostialdeko ESiko Anestesiologia eta Bizkortzeko Osasun Atal Sanitarioko burua (Minaren Unitatea) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. Eranskina)

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2022ko irailaren 27an

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentea.
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria
ESTHER LITAGO SOLA.



DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA
LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS

I. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORTZEKO OSASUN ATAL SANITARIOKO BURUA (MINAREN UNITATEA) IZENEKO LANPOSTUA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIAN BETIKO ZERRENDAA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Francisco de Borja MUGABURE BUJEDO

Baztertuak:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

II. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORTZEKO OSASUN ATAL SANITARIOKO BURUA (MINAREN UNITATEA)IZENENKO LANPOSTUA

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: Miren Idoia GURRUCHAGA ARRIOLA and.

Ordezkoa: Ana CALVO AGUIRRE and.

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Adolfo BEGUIRISTAIN GOMEZ jn.

Ordezkoa: Maria Teresa MARTINEZ ZABALETA and.

Bigarren batzordekidea

Titularra: Nuria GONZALEZ JORRIN and.

Ordezkoa: Ane MARTIN DE LA FUENTE and.

Hirugarren batzordekidea

Titularra: Enrique MANUEL BAREZ HERNÁNDEZ jn.

Ordezkoa: Luis Jesús ESNAOLA ORMAZABAL jn.

Laugarren batzordekidea

Titularra: D. Iñaki ROA MARTINEZ jn.

Ordezkoa: Yolanda OLIVARES SARALEGUI and.

Idazkaria

Titularra : Esther LITAGO SOLA and.

Ordezkoa : Pilar SÁNCHEZ GARDUÑO and.